

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak funtziona dezan hornitzaileak behar ditugu, gehien bat, baserritarrak eta dendariak, izan ere, beraien laguntza gabe ez dugu produkturik edukiko eskaintzeko. Proiektua aurrera eramateko beraien laguntza behar dugu, produktu guztiak beraien borondatez jarritakoak izango dira eta. Beraz, inork ez badu produkturik jartzen eta horren ordez zakarrontzira botatzen badituzte, ekimen hau ez da aurrera aterako. Baina, gure ideia baserritarrek fruituak, barazkiak eta arrautzak eskaintzea da. Dendarien kasuan, fruituak, ogia, gozoak eta zaharkitzen ari den beste edozein produktu. Horrela, elikagai gutxiago alferrik galtzea lortuko dugu, zakar gutxiago sortuz, gutxiago kontsumituz eta jendeak elikagai naturalagoak erabiltzea lortuz.